

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****VITORIA-GASTEIZKO UDALA****OGASUN SAILA****Ura hornitu eta ur zikinak garbitzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasen erroldak jendaurrean jartzea —2019ko laugarren hiruhilekoa—**

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo dira jendaurrean jarrita, Uren Udal Zerbitzuan —Antilletako pasabidea, 3A— eta San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, behea— ura hornitu eta ur zikinak garbitzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasen errolda fiskalak, 2019. urteko laugarren hiruhilekoari dagozkionak, interesdunek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak egiterik izan dezaten.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo diren erroldetan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa hori ordaintzeko epea 2020ko otsailaren 1etik martxoaren 15era artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 17an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE